

Ospatutako jardunaldia “Proiektu partekatu baten eraikuntzarantz”.

2016/05/20

MIK, Deba goieneko mankomunitatearekin eta ASLE-rekin batera (Euskadiko Lan Sozietateen Elkarte), hurrengo proiektua garatzen ari da “Erakunde-proiektua partekatuz, lidergo eraldatzailean eta langileen partaidetza oinarrituta.” Honen promozio eta finantzaketaz arduratzen direnak, honako hauek dira: Sustapen Ekonomikoko Departamentua, landa-eremua, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lurralde Oreka. Proiektu honen zutabeak, proiektu partekatua, lidergoa eta partaidetza dira eta honen bidez, ikusi nahi da, ze faktorek daukaten eragina hauetariko bakoitzean, eta zein den euren arteko erlazioa.

Testuinguru honetan eta proiektuaren barnean, joan den apirilaren 25ean, MU Enpresagintzan, hausnarketa eta lan jardunaldia ospatu zen, proiektu partekatuaren kontzeptuaren gainean eta bertan, parte hartu zuten, Gipuzkoa lurraldeko 20 bat enpresek.

Jardunaldian zehar, hainbat lan dinamika egin ziren eta bertan, enpresa parte hartzaileek partekatu ahal izan zituzten euren esperientziak eta etorkizuneko erronkak, proiektu partekatua kontzeptuaren gainean. Erakundeetan, proiektu partekatua lantzeko egon daitezkeen dimentsio ezberdinei buruz hitz egin zuten, hala nola, aspektu estrategikoak, elementu kulturalak, emozionalak eta espiritualak. Besteak beste, konfiantza, errespetu, emankortasun eta ilusioaren garrantzia azpimarratu zen; hauek guztiz beharrezkoak baitira, proiektuaren garapenean aurrera egiteko.

Bestalde, kontzeptu hau garatzeko, erakundeak burutzen ari diren esperientziak eta ekintzak partekatu ziren. Komunikazio /sentsibilizazio eta aspektu estrategikoetan zentratutako praktikak. Garatzeke geratu dira, beste dimentsio batzuk, funtsezkoak diren hainbat elementu eta abordatu gabe daudenak, eta baita proiektu partekatuaren garapena aurrera ateratzen ez duten hainbat gai.

